

# MUGARIK GABE

## 2023ko TXOSTENA

mugarik gabe

**mugarik gabe**

Garapenerako Lankidetza GKEa den Mugarik Gabetik herrien arteko globala eta interdependientea den garapenean sinisten dugu. Gure lana, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango den giza garapen integrala lortu nahian, tokia-tokiko hasten dugu mugetik haratago zabalduz.

**ARABA**
"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g
01003 Vitoria-Gasteiz
945 277 385 – araba@mugarikgabe.org

**BIZKAIA**
Vicente Garamendi auzunea 5, behea
48006 Bilbao
94 415 43 07 – bilbao@mugarikgabe.org

**GIPUZKOA**
Katalina Elizegi 46, behea, 4.atea
20009 Donostia
943 445 977– gipuzkoa@mugarikgabe.org

**www.mugarikgabe.org**
Mugarik Gabe
@mugarikgabe
@mugarikgabeongd
@MugarikGabeONGD

**Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0)** Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

**Lizentzia osatua:** http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_



# MUGARIK GABE

## 2023ko TXOSTENA

mugarik gabe

# LANKIDETZA LEGE BERRIA EUSKADIN, ANALISIA

Bi urtetik gorako prozesuaren ondoren, legealdiko azken osoko bilkuran (2024ko otsailaren 15ean) Nazioarteko Lankidetzarako eta Elkartasunerako Lege berria onartu zen. Hala, ordeztu egin zen 2007tik ordura arte indarrean egondako legea. Mugarik Gaben gogor lan egin dugu beharrezko eztabaida pizteko eta euskal erakundeek aurkeztutako lehenengo aurreproiektua hobetzeko aurrera egiteko, asko baitzuen hobetzeko. Denbora horretan guztian, ekarpenak egin ditugu GKE-en Koordinakundearekin batera eta Elkartasuna Eraldatuz sarearen esparruan.

Aurkeztutako lehenengo zirriborro hura nabarmen hobetu dela onartu behar dugu; gehiegi ez luzatzeko, ordea, hemen ez dugu sakon aztertuko. Hala ere, badakigu erakundeek ez dutela zenbait elementuri buruz eztabaidatu nahi izan, eta horrek kezka piztu du euskal lankidetzaren etorkizunari dagokionez. Hona hemen horietako batzuk:

- Kezkatu egiten gaitu lege berriaren bidez ateak zabaltzeak irabazi-asmorik gabekoak ez diren eragileei; batez ere, enpresei, enpresen menpe dauden fundazioei. Hainbat aldiz eta hainbat espazio eta modutan argudiatu dugu hori. Lankidetzak bereizgarri izan behar ditu elkartasuna, independentzia, hurbiltasun komunitarioa, epe luzerako konpromisoa, eskubideen nagusitasuna, sistema ekonomiko bidegabea eraldatzeko izaera. Hori dela eta, ezin da inoiz baldintzatu onura ekonomiko, komertzial edo kanpo-politikari lotutakoen eraginez.

- Kezkatu egiten gaitu zuzeneko lankidetza, erakundeek egiten dutena, ehunekotan ez mugatzeak (2007ko legean muga hori aurrekontuaren % 10ean ezarri zen). Ez dugu ukatzen haren balioa eta eskaintzen dituen aukerak, baina, gure ustez, soilik erakundeen irizpideen menpe utziz gero, euskal gizarteak rol protagonista galdu dezake. Izan ere, neurri handi batean, euskal gizarteak definitu ditu lankidetza eta elkartasuna bera gaur egun ezagutzen eta aintzatesten diren ikuspegi, printzipio eta helburuekin.

- Kezkatu egiten gaitu lege horren bidez benetako konpromisorik ez ezartzeak lehenbailehen Errenta Nazional Gordinaren % 0,7ra iristeko bidean. Aurreko legeak konpromiso hori ezarri zuen, baina 2024an, oraindik ere, sistematikoki bete gabe jarraitzen du.

- Kezkatu egiten gaitu Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzak (GEH) protagonismoa galtzeak. Izan ere, horrek kalte egingo lioke gure gizarteak arazo horien aurrean —eta horien arrazoi, kausa eta arduradunen aurrean— behar duen kontzientziari. Horregatik, GEH indartzea proposatzen dugu, inguratzen gaituzten munduko herri eta pertsonekin kontzienteagoa eta solidarioagoa den euskal gizartea lortzeko lanaren oinarri gisa.

Orain, Lege berria onartuta, gizarte gisa espero eta nahi dugu euskal lankidetzaren eta elkartasunaren konpromisoa berritzeko aukera honek ihes egin ez diezagula.



# HEZKUNTZA, BIZIMODU JASANGARRIAK ETA HERRI INDIGENAK

## PRESTAKUNTZA, TAILERRAK ETA TOPAKETAK IKASLEEKIN

Gure ustez, funtsezkoa da gazteekin lantzea Lurra eta Lurraldea defendatzeagatik Latinoamerikan izandako giza eskubideen urraketak eta antzeko gaiak, eta beraiekin hausnartzea hemendik egin dezakegunari buruz, klimaren eta zibilizazioaren krisiaren testuinguruan. Ildo horretan, 2023an espazio asko izan ditugu ikastetxeetako ikasleekin elkartzeko eta partekatzeko.





Martxoan, gurekin izan genituen Guatemalako *Prensa Comunitaria* hedabideko Paolina Albani kazetaria eta Hondurasko Dalila Argueta defendatzailea, Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de DDHH ekimeneko eta Arratiako bailarako Basoa proiektuko kidea. Haiekin batera, gatazka ekosozialeko kasuen salaketa eta komunikazioak eskubideen defentsan duen garrantzia landu genituen, eta hainbat ikastetxetako ikasleekin elkartu ginen, hala nola Hernaniko Institutua, EHUko Hezkuntza Fakultatea, Getxoko Fadura LHII, eta Mondragon Unibertsitateko Humanitateen Fakultatea.

Martxoan baita ere, eta unibertsitateko ikasleekin Komunikazioa, Kontrapublizitatea eta Bizimodu Jasangarrien gaia lantzeko, bi tailer antolatu genituen Isidro Jiménezekin (Unibertsitate Konplutentseko irakaslea eta Komunikazio Kontrakulturalean aditua), Deustu eta Mondragon Unibertsitateetako komunikazio ikasleei zuzenduak. Saio horietan, taldeka, iragarki kontrapublizitario bat sortu behar zuten, enpresa handien kontsumismoa edo gehiegikeriak salatzeko. Epaimahai batek bideorik onenak ebatzi zituen, eta halaber, sariak banatu ziren sare sozialetan gehien ikusitako bideoentzat.

Urrian, Guatemalako Melvin Picón ASECSA antolakundeko prestakuntza politikoko arduradunaren bisita izan genuen. Antolakunde horretan Alta Verapaz Departamentuko hainbat kasu laguntzen dituzte, megaproiektuen aurrean lurra eta lurraldea defendatzeko; zoritxarrez, kasu horietan giza eskubideen eta naturaren eskubideen urraketa ugari gertatzen dira, eta ezagutzera eman genizkien EHUko Hezkuntza Fakultateko eta Mondragon Unibertsitateko Humanitateen Fakultateko ikasleei. Saioetan, halaber, eskubideak defendatzeko proposamenak eta alternatibak landu genituen, dinamika parte-hartzaileen bidez eta ikuspegi lokal-global batetik abiatuta.

Bizitza Jokoan kanpainaren barruan egindako prestakuntza-prozesuez gain, Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak eskatutako prestakuntza-saioak ere eskaini genituen. Deustuko Unibertsitatearen kasuan, Donostian, krisi klimatikoaren eta giza eskubideen urraketen arteko harreman estuan oinarritutako prestakuntza eskaini zen. Oñatin, Mondragon Unibertsitateko Enpresen Administrazioko graduan eskainitako prestakuntzan, Desazkundeaz aritu ginen ikuspegi feministatik, eta alternatibak landu genituen elikaduraren, energiaren, zaintzen eta ekonomia sozialaren esparruetatik.

## ERAGIN SOZIAL ETA POLITIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

Paolina Albani Euskal Herrian egon zen martxoko azken asteetan, eta Melvin Picón 2023ko urrian. Biek ala biek, ikastetxeetako prestakuntza-saioetan parte hartzeaz gain, hainbat bilera egin zituzten euskal erakundeekin: Lankidetzarako Euskal Agentzia, Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko, Getxoko, Zumarragako eta Beasaingo Udalak. Bilera horietan, informazio eguneratua partekatu zuten beren lurraldeetan bizi duten egoerari buruz, baita nazioarteko lankidetzaren zereginari buruz eta erakunde bakoitzak laguntzen dituen prozesuen inguruan ere.

Era berean, kolektibo sozialen plataformekin bildu ziren, hala nola GKE-en Koordinakundearen Erdialdeko Amerikako lantaldearekin, Hegoak elkartearekin eta Elkartasuna Eraldatuz plataformarekin. Gainera, Bizitza Jokoan ekimenaren komunikazio kanpainaren esparruan, elkarrizketa ugari egin zituzten hainbat hedabidetan (*Argia, Radio Euskadi, 97FM, Herri Irratia, Pikara Magazine, Radio Vinilo*…). Elkarrizketa horien bidez, herritarrei ezagutzera eman zuten *Prensa Comunitaria*k eta ASECSAk —Mugarik Gabe-ko bazkideak biak — ingurumenaren eta eskubide kolektiboen alde egiten duten lana.



Horrez gain, salaketa publikoko prozesu bat lagundu genuen, hain zuzen ere Paolina Albaniri egindako elkarrizketa argitaratzeagatik *Argia* hedabideak jasotako mehatxuak salatzeko. Elkarrizketa horretan, Albanik salatu egin zituen Solway Investment Group meatze-multinazionalak egindako ingurumen-jarduketak. Enpresa horrek elkarrizketa ezabatzeko eskatu zion *Argia*ri, baita 15.000 euro ordaintzeko ere, eta ohartarazi zuen hori bete ezean auzitara eramango zutela aldizkaria. Egoera ikusita, mehatxuaren aurrean amore ez ematea eta salaketa publikoa egitea erabaki zuen *Argia*k. Mugarik Gabek prentsaurrekoan parte hartu zuen, eta komunikatu bat argitaratu zuen *Argia*ri elkartasuna adierazteko, hainbat antolakunderen atxikimenduekin: GKEak, sindikatuak, mugimendu sozialak, hedabideak, etab.




2023an, halaber, *Alternatibak Plazara* dokumentala zabaltzen jarraitu dugu. Bertan, hainbat bizimodu- eta kontsumo-aukera jasotzen dira, Elikadura Burujabetzatik, Trantsizio Energetikotik, Ekonomia Sozial eta Solidariotik eta beste Zaintza eredu batetik gertu daudenak. Deban proiektatu zen maiatzean, Debako Talde Feministaren laguntzarekin, eta bertaratze eta parte-hartze handia izan zuen jarduerak.

## BIZITZA JOKOAN ERAKUSKETA

Paraguai, Guatemala, Kolonbia eta Honduraseko kasuak bildu dira erakusketa honetan, non ikus daitekeen nola defendatzen duten herriek eta defendatzaileek Lurra, Lurraldea eta Natura eskubideen etengabeko urraketen aurrean eta meatzaritzaren, soja-monolaborantzaren, ibaien pribatizazioaren eta beste megaproiektu batzuetatik.

Gipuzkoan, ikusgai egon da Deustuko Unibertsitatean, Donostiako Okendo Kultur Etxean, Ulia mendiko Interpretazio Zentroan, Hernaniko Kulturarteko Plaza Feministan, Eibarko Kontsumo

Arduratsuaren Azokan eta Irungo Liburutegian. Bizkaian, bestalde, ikusgai egon da EHUko Hezkuntza Fakultatean eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultatean, basa-animaliak hartzeko Karpin Fauna ingurumen-zentroan, Getxoko Ingurumen Aretoan, Getxoko Fadura LHIIn eta Bilboko San Frantzisko eta La Bolsa gizarte-etxeetan. Getxoko Ingurumen Aretoan, Getxoko Fadura LHIIn, Ulia Mendian eta Deustuko Unibertsitatean, Donostian, erakusketaren inaugurazioarekin batera, Bizitza Jokoan kanpainaren aurkezpena egin zen jolas digital baten bidez. Bestalde, Dalila Argueta Hondurasko defendatzaileak hitzaldia eman zuen gune batzuetan, eta beste batzuetan Paolina Albani Guatemalako kazetaria izan genuen.



# GIZARTEA ERALDATZEKO HEZKUNTZA FEMINISMOAK

## INDARKERIAK: MEMORIA ETA ERREPARAZIOA

2023an, indarkeria matxisten aurkako estrategiak erreparazio-eskubidea ekarri du erdigunera. Horretarako, zabaltzen jarraitzen dugu indarkeria matxistei biziraun dietenen oroimenaren eta erreparazioaren garrantzia, hainbat ekimenen bidez: sare sozialen bidezko hedapen-kanpaina bat —batez ere gazteei zuzendua— eta hitzaldiak unibertsitateetan eta erakundeetan. Andoainen eta Agurainen, hausnartu egin genuen udalerrietan bertan erreparazio soziala eta instituzionala garatzeko moduari buruz. Horrez gain, Laudion, Memoria Eraikiz proposamen artistikoa burutu zen institutuko ikasleekin, eta biziraun duten emakumeei adituz landu zen gaia.

Era berean, dokumentazio kolektiboko prozesu bat abiatu dugu hainbat indarkeria matxistari aurre egin eta biziraun dieten emakumeekin, eta jaso egin ditugu erreparazio sozial eta instituzionalerako dituzten eskaerak. Lehen urratsa izan da hori, jasotako eskaera batzuk martxan jarriko baititugu datozen urteetan.

Bestalde, El Salvadorreko La Colectiva-ko Irma Lima eta Rosie Bonilla kideekin elkartu ginen, eta baita Apopa udalerriko emakumeen unitateko arduraduna den Carolina Zelayarekin ere. Astebetez egon ziren gurekin, eta indarkeria matxistei aurre egin dieten emakumeei eta LGTBIQ+ kolektiboari arreta emateko zerbitzuen funtzionamendua partekatu zuten Gasteizko Udaleko teknikariekin, LGTBI+fobiaren aurkako behatokiarekin, Gasteizko eta Arrasateko emakumeen etxeekin, San Inazioko modulu psikosozialarekin eta Emakunderekin. Espazio bakoitzak bere jarduteko moduak eta protokoloak partekatu zituen, proposamenak biltzeko asmoz.

Azkenik, Laura Carrasco —IM-Defensoras-eko kidea eta Giza Eskubideen Defendatzaileen Mexikoko Sare Nazionaleko kidea— hemen zela aprobetxatuta, hitzaldiak eta tailerrak antolatu ziren Araban hainbat GGKE, elkarte eta mugimendu sozialekin batera, eta sakondu egin genuen Babes Feminista Integralaren ereduari buruz. Eredu horrek abiapuntu du aitortzea defendatzaileen lanak eragindako indarkeriak lotura estua duela genero-diskriminazioarekin, eta haren eraginpean dagoela erabat. Halaber, ehun sozial sendoa sortzea du helburu, aintzat hartuko dituena defendatzaileen ekarpenak eta babes-premia espezifikoak; eskura jarriko dizkiena babeserako zerbitzu eta baliabideak; eta indartu egingo duena haien ahalduntze-prozesua. Gainera, bideo bat egin eta zabaldu genuen, zertan datzan azaltzeko https://youtu.be/uMwaKGNPdOc

## ZAINTZAK

Aurrera jarraitu dugu gure antolakundeetako zaintzei buruzko proposamenean sakontzen, sinetsita baikaude apustu horri esker gure antolakundeak eta gure bizitzak jasangarriagoak izango direla.

Ikusezinean Bidaiatzen webgunean, zaintzaren atalean, material eta eduki gehiago igo ditugu. Bertan, material pedagogiko ugari daude gure antolakundeetan antolakuntza-aldaketa feministako prozesuak erraztera bideratuta. 2023an, halaber, ikus-entzunezko material gehiago igo dugu, hala nola *Zaintza botikina* bideoa eta ildo horretako truke-espazioetan parte hartu duten hainbat kideri egindako elkarrizketak, hain zuzen ere Calala, L'Esberla eta Mujeres que Crean antolakundeetako kideenak eta gure esperientzian parte hartu dutenenak.



2023an, arlo horretako esperientziak eta ikaskuntzak Medellingo (Kolonbia) Mujeres que Crean antolakundearekin trukatu ditugu. Izan ere, urteak daramatzagu haiekin elkarlanean proposamenak eratzen, giza eskubideen defendatzaileen eta gure antolakundeen zaintza helburu. Cauca Eskualdeko Kontseilu Indigenako (CRIC) kide batzuen bisita ere aprobetxatu dugu, nork bere testuingurutik zaintzari buruzkoak partekatzeko.

Sortutako proposamenak espazio instituzionaletan ere zabaldu ditugu, adibidez, Aguraingo Udaleko eta Burgosko Aldundiko teknikariekin. Baita beste toki batzuetan ere, esaterako, Sallurtegi Emakumeen Kultur Elkartearekin, zeintzuekin prestakuntza-saio batzuez osatutako prozesu bat egin genuen, beren antolakundean zaintzak txertatzera begira. Halaber, Udaleko Berdintasun arloak antolatutako zaintzei buruzko jardunaldietan parte hartu genuen, azaroaren 25eko jardueren harira.



## LAN-POLITIKA FEMINISTARI BURUZKO PROZESUA

2023. urtean, REAS Euskadi, Setem Hego Haizea, XXK eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundearekin batera, dokumentu bat sortu genuen: *Denera iritsi ezinaren aurrean, lan-politika feminista: 10 printzipio eta 20 akordio guztion bizitza erdigunean jarriko duen lan-politika zehazteko*. Dokumentu hori hausnarketa eta eraikuntza kolektiboko prozesu baten emaitza da, helburu duena antolakunde bizigarriak eraikitzen jarraitzea, ikuspegi feminista eta antikapitalista abiapuntu.

Prozesu kolektibo horren bidez, edukiz hornitu nahi izan da ikuspegi feminista duen lan-politika bat eraikitzeko ideia, eta zehaztu egin da zeintzuk diren funtsezko gakoak enplegu bizigarriagoak eratzeko bidean.

Prozesu horretan zenbait printzipio (10) eraiki ditugu, gure ustez bidea zabaltzen dutenak bizigarriagoak eta feministagoak diren lan-antolaketa eta -politikak erdiesteko. Bide-orri bat da. Gida bat, egiten duguna egiten dugula ere, printzipio horiek betetzetik hurbilago edo urrunago gauden baloratzeko. Bestetik, hainbat arlorekin lotutako akordioak (20) sortu ditugu, gure apustua zehazteko: denbora, baldintza ekonomikoak, lanen antolaketa, gaitasunak eta parte-hartzea indartzea, espazioak, identitatea eta laneko harremanen giroa. Laster gure webgunean egongo da eskuragarri. Hortaz, irakurtzera eta nola aplikatu aztertzera animatu nahi zaituztegu.

## HEZKIDETZA

2023an, ikastetxeentzako eskaintzan, hezkidetza bultzatzearen aldeko apustuari eutsi diogu. Hala, San Jorge LHII ikastetxeari I. Hezkidetza Plana egiteko parte-hartze prozesuan lagundu diogu. Era berean, lagun egin diogu LHII ikastetxeari I. Berdintasun Planaren ebaluazioan, eta Repelega LHII ikastetxeko irakasleei prestakuntza eskaini diegu hezkuntza-programazioetako genero-ikuspegidun ebaluazioari buruz.



# MUGARIK GABE-REN BARNE-PROZESUAK

## MGREN JAZARPEN-PROTOKOLOA EBALUATZEA ETA BERRITZEA

Mugarik Gaben, 2019an, jazarpen sexual eta sexistaren aurkako eta generoagatiko edo sexu-orientazioagatiko jazarpenaren aurkako gure lehen protokoloa onartu genuen. Izan ere, uste osoa dugu apustu publikoak egiten baditugu, gure antolakundean bertan egiten duguna berrikusi behar dugula. Gainera, protokolo horiek esku hartzeko tresna izateaz gain, prebentzioan ere lagun dezaketela uste dugu.

2023an protokoloa ebaluatu dugu, onartu zenetik 4 urte igaro direlako. Neurri berriak zehaztu ditugu, hainbat elementutan sakontzeko, hala nola jazarpen-egoerak lan egiten dugun sare edo antolakundeetan edo gure jarduera propioetan, eta sexuagatiko eta/edo generoagatiko jazarpenak beste zapalkuntza-elementu batzuekin —arrazakeriarekin, esaterako— duen harremanean.

## LAN-HITZARMENA BERRITZEA, IKUSPEGI FEMINISTAREKIN

2023an hausnarketa-prozesu bat egin dugu gure lan-akordioak berritzeko. Horretarako, ezinbestekoa izan da memoria honetan ere aipatzen dugun lan-politika feministari buruzko gogoeta-prozesua; akordioetan begirada feminista txertatzearekin dugun konpromisoa berresteko, baita aurrera egiteko pista eta proposamen gehiago izateko ere.

Hitzarmen honetan aurrerapausoak egin ditugu hainbat elementutan, baina honako hauek izan daitezke ikuspegi feministatik aipatu beharreko batzuk: harremanen diagrama (*vinculograma*) onartzea —zaintzarako eskubideak familia-harremanetatik harago zabaltzea—, asteko lanaldia 34 ordura murriztea, eta eskubide guztietan edozein bikote-eredu parekatzea —ezkongabetasun-baimena mantenduta—, besteak beste.



# KINTSUGI EMAKUMEA



*Otra mujer herida se levanta*
*tiene tierra en la falda (la sacude),*
*se coloca el zapato que ha perdido*
*y desoyendo el miedo o el sonido*
*de cada voz ajena que la alude,*
*camina agradecida hacia el futuro.*
*Sabe que lo difícil y lo oscuro*
*el pasado y su inmensa cicatriz,*
*han hecho de ella, estrella y aprendiz,*
*eterna especialista en ser valiente.*
*Es fuerte y es mujer, no se arrepiente*
*de la flor que eligió ni de la astilla,*
*protege lo que en ella anida y brilla,*
*ha convertido en oro cada herida.*

**MUJER KINTSUGI**
Gabriela Vazquez

2010. urtean indarkeria matxistak salatzeko gure lan-estrategiari ekin genion. Topaketen, jardunaldien, ikerketen, elkarrizketen eta abarren bidez, espazioak partekatu ditugu hainbat indarkeriaren biktimekin, eta hala, urte horiek ikaskuntza eta erronka asko utzi dizkigute. Hasiera batean, indarkeria horiek guztiak salatzean jarri genuen arreta. Izan ere, indarkeria asko daude eta asko dira ere indarkerien egileak, horiek erreproduzitzen dituen sistema batean. Horrez gain, aurrera egin dugu hausnartuz ez dela aski indarkeria-ekintzak soilik gertatu ondoren artatzen dituen sistema bat.

Ulertu behar dugu indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubideak talka egiten duela indarkeria horiek mantentzen eta erreproduzitzen dituzten sistemekin, eta emakume askoren bizitzetan intersekzioan dauden horiekin; sistema kapitalista, zis-heteropatriarkala, arrazista, kolonialista eta abar, eta abar.

Horiek guztiak desagerrarazteko bidean, indarkeria matxistei biziraun dieten emakumeengan jarri behar dugu begirada. Bikote-harremanen esparruko indarkeriez ari gara, baina ez horietaz bakarrik. Migrazio-igarobidean eta helmugako lekuetan gertatzen diren indarkeriak, indarkeria bikarioa, instituzionala, lurraldeak espoliatu eta defendatzaileen aurka gauzatzen dena, eta hainbat lerro hartuko lituzkeen indarkeria-moten zerrenda luzea.

Indarkeriak hainbat testuingurutan gertatzen dira, hainbat magnitude izan ditzakete eta askotarikoak dira. Era berean, indarkeriak jasaten dituzten emakumeak ere desberdinak eta askotarikoak dira, baina guztiek gogoeta asko partekatzen dituzte. Nabarmentzekoak dira bi alderdi, beti errepikatzen direnak: lehenik, indarkeria horietatik ateratzeko eta osatzeko oso garrantzitsuak direla emakumeen antolakundeekin eta antzeko esperientziak bizi izan dituzten emakumeekin elkartzea —baina ez beti—, eta funtsezkoa dela denbora partekatzea eta entzunak, informatuak, lagunduak eta epaitzen ez dituztela sentitzea. Errepikatzen den beste alderdia kontatzeko gogoa da, beste emakume batzuei laguntzekoa, bizi izan dutena errepika ez dadin eta beste ezein emakumek jasan ez dezan. Beste emakume batzuen prozesuetan laguntzea, sororitatearen adibide izateaz gain, osatzeko elementua ere bada.

Gizartea eraldatzeko hezkuntza-prozesu horren bidean, Erreparaziorako Eskubidean jarriko dugu orain arreta; izan ere, giza eskubideen urraketa handiei lotuta dago. Indarkeria matxistak ez al dira genozidioa? Icebergaren puntari bakarrik erreparatuz gero, feminizidioen kopurua etengabeko tanta-jarioa da, benetan beldurgarria.

Erreparaziorako eskubideak osagai indibidual bat du, biziraun duten emakumeek aukera izan dezaten zauriak sendatzeko eta beren bizitza berreskuratzeko, eta beren ingurunera berriro itzul daitezen merezi duten errekonozimendu eta sinesgarritasunarekin. Osagai kolektibo bat ere badu, eta gizartea haren parte izan behar da; ez errepikatzeko bermea, esaterako. Erakundeei eskatzen diegu kontuak eman behar dituztela, sistemaren akats horiek detektatzeko eta berriro gerta ez dadin neurriak hartzeko.

Ez digute balio bulegoetan diseinatutako erreparazio-prozesuek, guztientzako pilulen modukoek. Emakume bakoitzaren beharretatik abiatzen diren prozesuetan pentsatu behar dugu, indarkeriek emakume bakoitzarengan izandako inpaktuak eta premiak homogeneizatu gabe. Horregatik, entzute aktiboa funtsezkoa da biziraun duten emakumeei lagun egiteko, baita erreparazio-ekintzak diseinatzen eta abian jartzen parte hartu dezaten ere, betiere emakumeek eurek zehaztutako mugekin.

Ez dugu aipatu gabe utzi nahi erreparazioaren beste osagaietako bat: gogobetetzea, haien testigantzak zabaltzea. Izan ere, funtsezko elementua da sinesgarritasuna sustatzeko. Biktimak zalantzan jartzetik aitortzera igarotzea, eta kontakizun horiek gure memoria kolektiboan txerta daitezen sustatzea.

Amaitzeko, testu honi hasiera ematen dion irudi inspiratzailea aipatu nahi dugu: *kintsugi* izeneko arte japoniarra, hautsitako zeramikazko piezak urre-hautsez konpontzen dituena, pieza bakoitzari balio erantsia ematen dioten orbain horiek aintzat hartzeko.

Aintzat hartzeko indarkeria matxistari biziraun dioten emakumeek ageriko orbainak dituztela, ala ez, eta entzun beharreko istorioak kontatzen dituztela. Indarkeria matxistak desagerrarazteko, entzun egin behar dugu, sinetsi egin behar dugu. Gizarte gisa, antolatuta egon ala ez, urre-hautsaren parte izan behar dugu, gertatutakoa neurri batean erreparatzeko eta balio erantsia emateko, eta berriro gerta ez dadin mobilizatu eta jarduteko.

Ideia horretatik sortu zen Kintsugi, 2024ko otsailaren 24an: Indarkeria matxistei biziraun dieten emakumeen erreparazio-ekitaldi sinbolikoa.



# LANKIDETZA

## KOLONBIA

Giza Eskubideen aldeko antolakundeak bat datoz: Nahiz eta Kolonbiako Estatuak defendatzaileak babesteko larrialdi-neurriak hartu dituen, indarkeria etengabea da eta giza eskubideak defendatzeko espazioetan oztopo handiak daude oraindik ere. Humans Right Wacht-en arabera, arazo orokortua da genero-indarkeria, talde armatuek eragindakoa barne. Justiziarako sarbidea eskasa da oraindik ere; genero-indarkeriako delituen erantzuleek oso gutxitan erantzuten dute egindakoagatik.

Sexu-aniztasunari dagokionez aurrerapauso aipagarriak egin dira, hala nola lurralde-erakundeetan politika publikoak onartzea tokiko gobernuek pertsona anitzen eskubideekin dituzten konpromisoak gauzatzeko; eta Estatistikako Administrazio Sail Nazionalak (Departamento Administrativo Nacional de Estadística) sexu- eta genero-aniztasunari buruzko inkesta bat diseinatzea LGBTIQ+ pertsonen bizi-esperientziak eta diskriminazio-pertzepzioak identifikatzeko. Edonola ere, Defensoría del Pueblo erakundearen arabera, trans pertsonek bere eskubideen aurkako ekintza oldarkorrak jasaten dituzte oraindik ere; gutxienez 200 kasu dokumentatu dituzte. Brasilen atzetik, Kolonbia da LGTBIQ+ populazioaren aurkako homizidio gehien izan zituen Latinoamerikako herrialdea. https://www.elespectador.com/justicia-inclusiva/en-2023-cerca-de-200-personas-trans-han-sido-victimas-de-violencia-por-prejuicio/ / https://caribeafirmativo.lgbt/2023-un-ano-en-el-que-nos-esforzamos-por-mejorar-las-condiciones-de-vida-digna-de-las-personas-lgbtiq/

Otsailean, Gorte Konstituzionalak abortua despenalizatu zuen, inguruabar guztietan, haurdunaldiaren 24. astera arte; epealdi horren ondoren ere, abortatzeko eskubidea mantendu zuen bortxaketa, haurdunaldi ez-bideragarria edo haurdunaren bizitza edo osasuna arriskuan dagoen kasuetan. Halaber, Gorteak genero ez-binarioaren adierazlea onartu zuen otsailean, eta, ondorioz, auzitegi goren edo konstituzional batek horri buruz eskualdean emandako lehen epaia izan zen. https://www.hrw.org/es/world-report/2023/country-chapters/colombia#ac92b7

Herri indigenak eta afrikarren ondorengoak, bereziki Cauca iparraldekoak, indarkeriaren biktima dira oraindik ere. Gobernuaren bake-elkarrizketetan ahaleginak egin ziren arren —Erabateko Bakearen politikaren pean, ez errepikatzeko berme gisa—, 2023an 100 pertsona inguru hil zituzten, 110 desplazatu egon ziren, 175 pertsona derrigorrean errekrutatu zituzten, eta Cauca departamenduko herri indigenek 729 kaltetik gora jasan zituztela zenbatu zen. Testuinguru horretan, antolakunde indigenek oinarrizko eskubideen urraketa sistematikoa salatzen jarraitzen dute, baita bizitza eta integritatea kaltetzen eta Kolonbiako mugimendu indigena desegonkortzen ari direla ere; bereziki, herri indigenen sarraski fisiko eta kulturalaren bidez, Nasa herriarena batez ere.

## CAUCA ESKUALDEKO KONTSEILU INDIGENA

### Giza eskubideak

Bizitzaren eta Ama Lurraren Defentsan Caucako Herri Indigenen gaitasunak indartzeko prozesuan —arreta jarriz emakume indigenen parte-hartze politikoan eta lurralde-gorputz ardatzaren zaintzan, babestu eta defendatu beharreko lehen lurralde gisa—, hainbat ekintza gauzatu ziren: autobabes-ekintzak herri indigenen mundu-ikuskeratik abiatuta, komunitateei prestakuntza eskaintzearen bidez Emakumeen eta Guardia Indigenen prozesuak indartuta; lurralde-kontrolak; eta talde armatu ilegalek errekrutatzeko arriskuan zeuden lurraldeetako haurrei arreta emateko ekintza-planak.



Mugarik Gabek, Arabako Funtsaren baliabideak mobilizatu zituen 2023an, CRICen “Tejido de la Vida – Derechos Humanos” ekimenaren bitartez 22 familia baino gehiagoren premia humanitarioei erantzuteko. Izan ere, maiatzean, Pioya babeslekuko Los Robles-en, Caldono udalerrian eta Jambaló babeslekuko Solapan, Cauca departamenduaren iparraldean, talde armatuen arteko liskarrak egon ziren, biztanleria guztia desplazatzera behartuz.

### Programa Mujer

CRICen Programa Mujer delakoak, “Tejiendo redes por la convivencia sin violencia contra las mujeres en los pueblos indígenas del Cauca” proiektuaren bitartez, Emakume Indigenen CRIC II. Goi-bilera antolatu zuen martxoaren 6, 7 eta 8an. Bertan, 2.000 emakume inguruk, CRICen kongresuan eztabaidatu ziren proposamenak aztertu eta hausnartu zituzten. Mugarik Gabek goi-bilera horretan parte hartu zuen, ponentzia baten bidez, zeinak nabarmendu egin zuen indarkeria matxisten kontrako borrokaren eta sendatze-prozesuen, indarkeriaren erreparazioaren eta zaintzaren aldeko konpromisoaren bidean MGk eta CRICek urratutako prozesu luzea. Era berean, irailean, Emakumeen Asanblada egin zen.

Ekainean, Programa Mujer programako Nelly eta Imelda *mayorak* Euskal Herrira etorri ziren. Araban zenbait jarduera egin zituzten; emakumeen mutilazio genitalari buruzko truke tematikoetan parte hartu zuten Flor de África elkarteko Fatima Djarrarekin; eta ikuspegi dekolonialeko sexu-aniztasunari eta generoari buruzkoetan, Ayllu kolektiboko Yos Piñazekin eta Ikusgune sexu-aniztasunaren behatokiarekin.



## CAUCA IPARRALDEKO KABILDO INDIGENEN ELKARTEA – CXHAB WALA KIWE

Lurraldean gertatutako lurralde-desorekak erregistratu, ikusarazi eta salatu dira, Madeja taldeak aldizka argitaratzen dituen giza eskubideei buruzko buletinen bidez.



Kiwe thegnas edo guardia indigenak diziplina anitzeko lantalde bat du. Lantalde hori *mayora* deituriko pertsona jakintsu espiritual batek, gizarte-langile batek eta psikologo batek osatzen dute, eta kiwe thegnas-ei (Guardia Indigena) laguntza integrala ematen diete. Adingabeei eta haien familiei arreta psikokulturala, aterpea eta laguntza ematen jarraitu da, “Recomponiendo el Camino de Vuelta a Casa” izeneko estrategiarekin bat eginez.

Eraikin bat erosi zen, gaur egun Casa Refugio del Saber y la Vida Wala Kiwe izeneko etxea dena. Etxe horretan, arriskuan dauden Kiwe Thegnasen eta adingabeen kontrako mehatxu, errekrutatze eta beste gertaera biktimizatzaile batzuei erantzuten laguntzeaz gain, prestakuntza-eskolak antolatu eta ekoizpen-proiektu kolektiboak inplementatzen dira.

## CORPORACIÓN MUJERES QUE CREAN KOLONBIA

2023an, “Siempre vivas por un activismo saludable” izeneko prozesua amaitu zen, hiru urtez inplementatu ondoren. Hasieratik, liderren, giza eskubideen defendatzaileen, GKE-etako profe-

sionalen, erakunde publikoen eta giza eskubideak defendatzen dituzten antolakundeen ahalduntzearen eta giza eskubideak gauzatzearen alde egin du, haien gaitasun indibidualak eta antolakuntzari dagozkionak indartzeko, hala nola autozaintza, autobabesa, elkar zaintza eta zaintza kolektiboa, eta erantzun eta berme legal eta instituzionala.



Aliantzak bultzatzen ditu hiriko emakumeen, antolakundeen eta erakundeen arteko zaintza feminista sustatzeko. Horretarako giza eskubideen defendatzaileen arteko truke-prozesuak eta ekintza biderkatzaileak baliatzen ditu, arriskuei eta higadurari aurre egiteko eguneroko metodologien bidez; bost antolakundetan eta erakunde publiko batean zaintza-agendak eratu ditu; eta autozaintzaren eta elkar-zaintzaren inguruko proposamenak eta ekintzak antolatu ditu liderrentzako arriskutsuena den Kolonbiako lurraldean. Esperientzia politikoa, pedagogikoa, metodologikoa eta bizipenezkoa da, eta dokumentatuta dago CMQC eta MGren webguneetan estekatutako hainbat argitalpenetan.

“Ágora Virtual de las Mujeres para la prevención de violencias en la ciudad de Medellín” programak, Medellingo unibertsitate-testuingurutik, emakumeen aurkako indarkeriak desnaturalizatzen ditu eta zigor soziala ezartzen die. Horretarako, hainbat esperientzia eta metodologia baliatu zituzten unibertsitateetako ikasle, irakasle eta administrariek hobeto ulertzeko indarkeriak iraunarazten dituzten faktore sozialak eta nola eragiten duten dimentsio subjektiboan eta etorkizuneko lan-jardunean.

Pedagogia-, komunikazio- eta mobilizazio-prozesuei esker, erakundeen arteko artikulazioak ezarri ziren gobernu-erantzukizuneko titularrekin, unibertsitate-erakundeekin, beste GGKE batzuekin eta ikasleen, artisten eta gazteen kolektiboekin eta genero-batzorde instituzionalekin. Helburua zen indarkeriak prebenitzeko ekintza bateratuak sortzea unibertsitate-inguruneetatik eta horietan bertan, eta, horrela, haien tokia aitortzea hiriko erreferentzia-puntu politiko, sozial eta pedagogiko gisa, indarkerien prebentziorako.

Laburbilduz, Ágora Virtual programak beste lengoaia batzuk proposatu zituen indarkerien prebentzioaz hitz egiteko; lengoaia zaintzaileak, alaitasuna, lagunarteko gozamena eta hiriko emakume gazteen ahalduntzearen eta indarraren aitortza sustatzen dutenak.

“Violeta se Empodera y en las Redes no se Enreda” programak etapa berria abiatu zuen Medellingo neskatoen, neska gazteen eta emakumeen aurkako ingurune digitaletako genero-indarkeriak prebenitzeko. Sentsibilizazioa, parte-hartzea, mobilizazioa eta intzidentzia landu zuten antolakunde komunitarioekin, ikasle gazteekin, irakasleekin eta funtzionario publikoekin, informazio- eta komunikazio-teknologietan eskubideak aitortzea helburu, baita emakumeen bizitza eta gorputza errespetatzen dituzten irudikapen soziokulturalak sortzea ere, bakearen eta subiranotasunaren lurralde gisa.




Era osagarrian, nabigazio-bide batzuk garatzea proposatzen du, Ziberzaintzaren Agendak zabaltzeko: sentsibilizazio- eta indartze-kontzeptualeko espazioak; lengoaia artistiko eta komunikatiboak dituzten esplorazio-espazioak, bertan piezak, obrak eta gailuak sormenez garatzeko, zeintzuek mobilizaziorako eta intzidentziarako hausnarketak, galderak eta ezagutzak jasoko di-

tuzten, baita erabaki-hartzaileen aurrean eragiteko ekintzak ere.

Exekuzioaren bigarren urtean dago “Confluencia por el derecho a una vida libre de violencias para las mujeres y las niñas” ekimena. Medellin eta Barbosako agenda publikora ekarri ditu emakumeen bizitzako etapa guztietan eta eragile armatuen eztabaidaren eta lurralde-kontrolaren esparruan agertzen diren indarkeria fisikoak, sexualak eta feminizidioak, horiek aztertzeko eta lantzeko. Hala, ekimen horren bueltan bildu egiten dira emakumeak, emakumezko liderrak, 5 urtetik beherakoak hezteko eta babesteko erantzukizuna duten hezkuntza-eragileak, prebentzioan eta arretan eskumena duten erakundeetako udal-agintariak, biktimen antolakundeak eta trukeeta intzidentzia-ariketetan diharduten hezkuntza-erakundeetako langileak.



Egia, justizia, erreparazioa eta indarkeria matxisten biktimen oroimena berreskuratzeko proposamenen barruan, emakumeen gorputzetan eta bizitzetan arrastoak eta orbainak utzi dituzten indarkerien aurrean hausnarketa eta sorkuntza sendagarrirako topaketak sortu dira; horretarako, ehun-narratiba, laguntza psikosoziala eta psikoespirituala, arreta eta prebentzioa hobetzeko oztopoen dokumentazioa eta giza eskubideen urraketari buruzko txostenak baliatu dira, besteak beste.

## NIKARAGUA

Nikaraguako egungo erregimen politikoari lotutako hitzak dira beldurra, errepresioa, indarkeria, erbestea eta inpunitatea. Nazio Batuen arabera, egungo gobernuaren eguneroko ekintzak giza eskubideen urraketa argiak dira: oposiziokoak direlako susmoa dagoen pertsonen jazarpena eta sistema judizialaren independentziarik eza, oso nabarmena dena (epaiketarik gabe agindutako espetxe-zigor luzeak, deportazioak, nazionalitatea arbitrarioki kentzea eta nikaraguarrei beren herrialdera itzultzea debekatzea).

2018az geroztik, itxi egin dituzte gizarte zibileko 3.394 antolakunde eta hamabi unibertsitate, eta horietako batzuk “talde kriminalak antolatzeko terrorismo-gune” kalifikatu dituzte.

https://news.un.org/es/story/2023/09/1524017 .

Nikaraguako emakumeak eta mugimendu feminista izan dira Ortegaren erregimenak gehien kaltetutakoak. Hala dio María Teresa Blandonek: “Emakume nikaraguar guztiak, baina, bereziki, pobreenak, erabili eta mespretxatu egin ditu Ortega-Murillo erregimenak”. Gogora dezagun 2022 eta 2023 artean 170 feministak bortxazko desplazamendua jasan zutela eta 46.000 pertsonak Costa Rican asiloa eskatu zutela.

https://www.divergentes.com/violadores-sexuales-sin-castigo-en-nicaragua/

Testuinguru horretan, Mugarik Gaberentzat lehentasunezkoa da espazio publikoetan eragitea eta beste modu batzuk bilatzea 25 urtetik gora kide izan dituen biztanleei laguntzeko.

## AXAYACATL

2023an, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-prozesuekin jarraitu zuen Axayacatlek, kultura heteropatriarkalaren deseraikuntza ardatz hartuta. Garrantzitsua izan da biderkatze-estrategia erabiltzea, ezagutzak herriko beste emakume batzuei helarazteko. Autolaguntza taldeei eta bikote barruko indarkeriari biziraun dioten emakumeekin egindako autozaintza-saioei esker, emakumeek autonomia emozional handiagoa eskuratu dute beren bizitzetan, eta babes-sareak ehundu dituzte.

San Frantzisko, Chacocente eta Las Flores eskualdeetan, nekazaritza- eta abeltzaintza-tailerren prestakuntza-saioak amaitu ziren, baita igeltserotza-modulua ere (Las Flores). Tailer horiek eragin positiboa izan dute emakumeen autonomia ekonomikoan.

Azkenik, Masayako departamentuko 20 kazetarik prestakuntza jaso zuten autoestimua eta GIBari eta bikote barruko indarkeriari buruz. Hala, ekarpena egin zen hedabideek emakumeen kontrako indarkeria arazo sozial eta kulturaltzat hartzeko, desnaturalizatu egin beharrekoa, eta estereotipoak eta birbiktimizazioa saihesteko.





letan gutxienez hiru obra egin dira lurzorua eta ura kontserbatzeko (ur-gordailuak, baso naturala leheneratzeko eremuak eta fruta-arbolak patioetan landatzea; eta energia-gordailuak, zurgaiak, udal-haztegitik datozenak eta komunitarioak). Genero-indarkeria prebenitzeko prestakuntza eskaini zaie 33 komunitatetako eskualde-batzordeetako genero-idazkaritzetako 204 kideri.



## XOCHILT ACATL

2023an, 10 emakumek beren lurrak legeztatu dituzte; horri esker, haien ekoizpen-ekimenak hobetu dira, baita familien bizimodu duina eta elikagaien segurtasuna ere. Era berean, baso-artzaintza sistemarako eremuak ezarri dira eta ura errazago eskuratzeko sistemak eraiki dira, familiek erabiltzeko zein ekoizpen-jardueretarako.

28 komunitatetako 27 gizon-emakume komunitate-bideratzaile gisa trebatu ziren, Escuelas Sociales Comunitarias de Agua izeneko eskoletan ezagutzak biderkatzeko. Eskola horietan lantzen diren gai batzuei esker, gizonek beren jarrera sexistak eta matxistak zalantzan jartzen dituzte; emakumeen kasuan, gizon eta emakumeen arteko desparekotasunak zalantzan jartzen dituzte, ez bakarrik uraren erabilerarekin eta harekiko harremanarekin lotuta, baizik eta ingurune osoan, are uraren kudeaketan parte-hartze aktiboa eta proposamen bidezkoa izan dezaten ere.

“Programa de Participación Comunitaria en el Desarrollo Local” programak, prestakuntza eskaintzen jarraitzen du generoari, tokiko garapenari eta uraren kudeaketari buruz, eta gizarte- eta ingurumen-arloko eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko diagnostiko parte-hartzaileak eraikitzen. Gainera, biztanleriaren partze-

## BOLIVIA

Azken urtean, munduak gero eta ahots gehiago entzun ditu krisi klimatikoaren larritasuna ukatzen. Eskuin muturreko posizioek diote bizitzen ari garen aldaketak ziklikoak direla, Lurrak jada horrelako aldaketak pasa dituela eta laster iraganeko “normaltasuna” berreskuratuko dugula. Beste ahots batzuek, krisia gogoz kontra onartuz, itsu-itsuan sinesten dute zientziak ekarriko dituela munduak behar dituen konponbideak.

Hala ere, Boliviakoa beste adibide bat da, frogatzen duena azken hamarkadetako krisia benetakoa dela eta larriagotzen ari dela, modu geldiezinean. *El estado del medio ambiente en Bolivia*

izeneko 2014ko txosten baten arabera, 2009. urterako aurkeztuak ziren eredu klimatikoen proiekzioak “Cambio Climático: Efectos, Impactos, Oportunidades y Desafíos para Bolivia” foroan; horien arabera, 2030erako, Boliviako Errege Mendilerroko glaziar gehienak desagertu, eta Titikaka aintzira murriztu egingo da, gutxienez bitan zatituta. Era berean, La Paz eta El Alto (2 milioi biztanle) hirietako metropoli-eremuan gero eta ur-eskasia handiagoa egoteak populazio-hazkundea murriztuko du eta ezegonkortasun soziala bultzatuko; goi-lautadako nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpenak klima kaltegarriaren eragina jasango du, elikadura-segurtasun falta areagotuz; behe-lurren ekoizpen-potentziala asko murriztuko da haizearen abiadura, lehorteak eta uholdeak areagotzegatik eta lurzoruen degradazioagatik; haranen ekoizpen-eskaintza bideraezin egingo da kalte klimatikoen ondorioz; ekialdeko hirietan aldaketa eta murrizketa sakonak izango dira, etengabeko uholdeen eta kutsadura larriaren ondorioz. Labur esanda: egoera oso txarra da, eta zentzu askotan, dagoeneko geratzen ari da.

Batzuek esango dute ez argudiatzeko, egoera hori gertagaitza den hipotesia besterik ez dela. Hala ere, azken urteetan egiaztatu dugu bide horretan gaudela.

Egoera horren alde positiboa: herriek eta Boliviako Estatuak badituzte tresnak egoerari aurre egiteko. Konstituzioak irizpide zabalak jasotzen ditu ingurumenaren eta baliabide naturalen arloan. Honako hau ezartzen du estatuaren funtsezko helburu eta eginkizun gisa: “Baliabide naturalen aprobetxamendu arduratsua eta planifikatua sustatzea eta bermatzea, eta baliabide horien industrializazioa bultzatzea, ekoizpen-oinarria garatuz eta sendotuz dimentsio eta maila guztietan; baita ingurumenaren zaintza sustatzea ere, egungo eta etorkizuneko belaunaldien ongizaterako”. Gainera, herri indigenei dagokienez, honako hau adierazten du: “Estatuaren batasunaren esparruan eta Konstituzio honen arabera, nazio eta jatorrizko herri indigena nekazariek honako eskubide hauek dituzte: ingurumen osasuntsuan bizitzeko eskubidea, ekosistemen erabilera eta aprobetxamendu egokiaren bidez”.



Ez dago Konstituzioan, baina geroago jaso eta onartu zen Ama Lurraren Eskubideen Legea (Ley de Derechos de la Madre Tierra), zeina, Ekuadorko konstituzioarekin batera, funtsezko lege bihurtu baita krisi klimatikoaren aurkako borrokan aurrera egiteko, aitortzen baitu natura eskubideen subjektu politikoa dela.

Lege horiek eskaintzen dituzten aukeretatik hasita komunikazio propioa tresna estrategiko gisa erabiltzeraino Boliviako nekazarien jatorrizko herri indigenen eskubideak gauzatzeko, krisi klimatikoari aurre egiteko bidea ere urratzen da. Batasun Ituneko (Pacto de Unidad) antolakundeek —indigenen, nekazarien eta emakumeen konfederazioak— eta CEFREC eta CAIB antolakundeek premia argia dute. Bolivia aldatu egin da, kontinentea ere bai, eta krisi-egoera berriak zabaltzen ari dira. Mugarik Gabek, Boliviako antolakundeen eskutik, 2023an urratsak egiten jarraitu dugu eta 2024an ahaleginak areagotuko ditugu ekarpen kolektiboak egiten jarraitzeko bizi-baldintzak hobetzea eta eskubide guztiak gauzatzea helburu, beharrezkoa baita ere naturaren eskubideak aitortzea eta gauzatzea.

## EL SALVADOR

